Hilean behin, publiko guztientzako ikus-entzunezko programazioa (animazioa, zinema esperimentala, film laburrak...) aurkeztuko da, eta proiekzioaren ostean, lantegi eta dinamika ezberdinak planteatuko dira zinemarekin lotutako gaiak eta teknikak elkarrekin lantzeko.

APIRILAK **2** (igandea) **> 12:00**

MAIATZAK**7** (igandea) **> 12:00**

EKAINAK **4** (igandea) **> 12:00**

## HORMA

Ikus-entzunezko programa Tabakalera eraikinaren hormetara hedatzen da. Ikus-entzunezko programarekin eta Tabakalerako zinemarekin lotutako obrak proiektatzeko gune bat da Horma. Hilean behin, egile batek eraikineko hormara, espazio publikora, hedatzen du bere ikus-entzunezko lan zinematografikoa, eta, horrela, Tabakaleran barna dabilen jendearengana gerturatzen da nazioarteko artisten ekarpena. Beraz, kultura bisuala eraikinaren eta ikusentzuleen egunerokora hedatzea eta bertan integratzea da kontua.

APIRILA
***025 Sunset Red,*** Laida Lertxundi, Espainia-AEB, 2016, 14'.

MAIATZA
***Remedies-Rongoâ,*** Sasha Huber y Petri Saarikko, Finlandia, 2016, 6'.

EKAINA
***Hacked Circuit,*** Deborah Stratman, AEB, 2014, 15'.



*025 Sunset Red, Laida Lertxundi, 2016*

# LABORATEGIAK

*Laborategiak* gure ikus-entzunezko tailerren ildoa da: zinematografiako eta ikus-entzunezko arteari buruzko topaketa praktiko-teoriko batzuk dira, bertako nahiz nazioarteko profesionalek irakatsiak. Tabakalerako pantailaren osagarri bezala funtzionatzen du. Bere helburua zinema/ikus-entzunekoa pentsatzeko eta egiteko espazio bat eskaintzea da.

## FIKZIOAREN AUKERAK

**Nicolás Pereda, Gabino Rodríguez, Garbiñe Ortega.**

APIRILAK **28, 29, 30**

Proiektu zinematografiko bat duzu? Ikus-entzunezko lengoaiaren mugez inoiz galdetu diozu zure buruari? Lantegi honek zinemaren, arte bizien eta arte garaikidearen arteko harreman estua ikertzea du helburu eta arlo zinematografikora hurbiltze narratibo ezberdinak aztertu nahi ditu.

Asteburu bateko lantegian, parte-hartzaileek euren lan eta proiektuak aurkeztuko dituzte proiektuen garapenean lagungarriak izan daitezkeen ideia eta kritika eraikitzaileak elkarbanatzeko xedearekin.

Ostirala 28:
**16:00 - 19:00 >** 1. saioa

Larunbata 29:
**10:00 - 19:00 >** 2. saioa eta 3. saioa

Igandea 30:
**10:00 - 14:00 >** 4. saioa

*Informazio gehiago eta izen-emateak: tabakalera.eu*



***Fikzioaren aukerak***



PROGRAMA PUBLIKOAK

***MUGAK-FRONTERAS***

Amaia Molinet



# PROGRAMA PUBLIKOAK

—

Aurkibidea
**MUGAK-FRONTERAS**
**DISONANTZIA SOZIALA**

APIRILAK **11** (asteartea)
Esku-hartzea
## MUGAK-FRONTERAS
*Amaia Molinet*
**19:00 ES**
Lantegia

Mugaren ideia oinarrizko ardatz duten hiru proiektu aurkezten ditu Amaia Molinet artistak. Muga bera alderdi politiko, kultural eta fisikotik birpentsatzea proposatzen du. Ibilbideak Europan, Saharan edo Islandian kokatutako lurraldeen egoera arakatzen du, eta lurralde propioan amaitzen da, bere ohiko lanaren izaera fotografikoa artean zabalduz.

*Mugak/Fronteras* proiektuak muga ertz, bukaera edo deserrotze bezala ulertzen du. Pentsamendua eta muga-praktikak ertzetan dauden ezagutza bezala azaltzen dira, eta etengabe elkarrizketan eta mugimenduan dauden identitate eta praktika konplexuetan pentsatzera eramaten gaituzte.

*Mugak/Fronteras* egitasmoak gai hauen inguruan hausnartzea proposatzen du, ikerketa-lan baten eta aktibitate programa baten bidez; lantegiak, mintegiak, topaketak eta esku-hartzeak barne hartzen dituen programa bat. Ekintza hauek gure lurraldeko mugen inguruan gogoeta egitera gonbidatutako artistek eta kultur eragileek eskainiko dizkigute.

*Mugak/Fronteras* Maite Garbayo Maezturen proiektu bat da, eta Tabakalerak eta DSS2016EU-k 2017an elkarlanean abiatu duten ikerketa artistiko egonaldiaren barnean garatzen ari da.

APIRILAK **6** > IRAILAK **17**
Kontzertu-emankizuna
## DISONANTZIA SOZIALA
*Mattin*
Solairua

*Disonantzia soziala* Mattin artistak egindako jarraibidez osatutako partitura bat da, lau musikarik interpretatzekoa. Documenta 14 arte-erakusketan, Kassel eta Atenas hirietan egingo den kontzertu luze baten parte da.

Arreta soinu-arloan baino arlo sozialean jartzen duen kontzertu hau, apirilaren 6an hasiko da Atenasen eta irailaren 17an amaituko, Kasselen.

Kontzertu luze hori streaming bidez emango da zuzenean Interneten, Periscope aplikazioaren bidez, eta Tabakalerako 3. solairuan instalatutako pantaila batean jarrai daiteke.

Jarduera hau *Ezorduan* (musika eta iraultzak) programaren barruan kokatzen da.

*Gainontzeko programa publikoei buruzko informazioa 14-17 orrietan kontsulta daiteke, erakusketei lotuta.*



***Disonantzia soziala***

HIRIKILABS







# HIRIKI-LABS

—

Aurkibidea

**HIRIKIKAS**
**JOLABS**
**HIRIKILABS PLAZA**
**TOPAKETAK**
**DEIALDIAK**

*HIRIKILABS. KULTURA DIGITALA ETA TEKNOLOGIA LABORATEGIA.*

# HIRIKIKAS

APIRILAK **4, 5** (asteartea, asteazkena)
Lantegia
**MAPS&DATA: AIRBNB EFEKTUA DATUETAN**
*Montera34: Pablo Rey & Alfonso S. Uzábal*
**17:00 - 20:00 ES**
Izen-ematea aldez aurretik.
Hirikilabs

Joan den urtean kartografia digital hiritarrari buruzko lantegia eta mapa eta datuen arteko bisualizazioetara hastapena egin ondoren, Montera34 kolektiboak bertako kasu erreal batean oinarrituriko ariketa bat proposatuko digu. Kasu honetan, lantegiak helburu izango du euskal hiriburuetan dauden Airbnb web plataformako ostatuen presentzia eta hiri bakoitzeko higiezinen merkatuarekin duten lotura aztertzea.

APIRILAK **25 > 27** (asteartea > osteguna)
Lantegia
**EL RECETARIO: PROIEKTU IREKI BAT DOKUMENTATU**
*Makea tu vida / El recetario*
**17:00 - 20:00 ES**
Izen-ematea aldez aurretik.
Hirikilabs

Kode irekiko diseinuaren metodologiak ikasteko eta erabiltzeko lantegia. Baztertutako materialekin esperimentatzearen bidez, prototipoak eraikiko ditugu eta horiek nola sortu azalduko duten eskuliburuak prestatuko ditugu, nola errepika daitezkeen irakasteko.

MAIATZAK **2, 3** (asteartea, asteazkena)
Lantegia
**3D PIEZEN MODELATUA**
**17:00 - 20:00**
Izen-ematea aldez aurretik.
Hirikilabs

Bi saio hauetan 3D pieza bat hutsetik hasita eraikitzeko funtsezko oinarriak emango dira ezagutzera. Horretarako, lehendabizi planoetan egingo dira eskemak (2D), eta ondoren bilakatuko dira hiru dimentsioetako formara.

MAIATZAK **9, 16** (asteartea)
Lantegia
**DSS2016 BIRZIKLATU!**
*Makea*
**17:00 - 20:00 ES**
Izen-ematea aldez aurretik.
Hirikilabs

Diseinu, arkitektura eta birziklaketan aritzen diren zenbait kolektibo eta eragilerekin garatuko diren lan-saio hauetan Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburutzaren baitan sorturiko materialaren birziklapenerako proposamen ezberdinak egingo dira. Kasu batzuetan objektu berriak sortuko ditugu; besteetan, aldiz, material horiek nola berrerabili aztertuko dugu. Prozesu honek bi lan-saio izango dituen arren, maiatzean saio gehiago egiteko aukera egongo da, partaideek hala erabakitzen badute.

MAIATZAK **23** (asteartea)

Lantegia + Hitzaldia

## DO YOU SPEAK HUMAN?

**17:00 - 20:00 EN**

*RWATGG (Relax, we are the good guys)*

Izen-ematea aldez aurretik.

Hirikilabs

Egun hauetako batean, laster, zure gailuekin hitz egingo duzu, lagunekin egiten duzun moduan. Eta tramankulu horiek erantzun egingo dizute. Gaur egun, une honetan bertan, Silicon Valleyn egoitza duten enpresa zehatz batzuk osatzen duten talde bat ari da etorkizuneko elkarrizketa horiek guztiak sortzen.

MAIATZAK **30, 31** (asteartea, asteazkena)

Lantegia

## FANZINOTEKA IBILTARI BATEN ERAKETA

**17:00 - 20:00 ES**

Izen-ematea aldez aurretik.

Hirikilabs

Ekaineko lehen astean Ubiken *La Fanzinoteca* ekimenaren bisita dela-eta, lantegi bat antolatu dugu liburutegian jarriko den fanzinoteka ibiltari bat eraikitzeko. Hau egiteko laborategian gure ohiko tresnak erabiliko ditugu, fabrikazio digitalaren (laser mozketa, 3D inprimaketa, CNC mozketa... ) eta diseinu irekiaren printzipioak jarraituz. Helburua sortzeko eta muntatzeko erraza den fanzinoteka ibiltari bat erreproduzitzeko kit baten prototipoa eraikitzea da.

EKAINAK **6, 7** (asteartea, asteazkena)

Lantegia

## SORTZAILE NEGUTEGIAK: NOLA SORTU ESPAZIO MALGU BAT

*Arquimaña*

**17:00 - 20:00 ES**

Izen-ematea aldez aurretik.

Hirikilabs

Tabakalera eraikinaren proiektu arkitektonikoa abian jartzearekin batera hasi zen Tabakaleraren kultur programa garatzea ahalbidetuko zuen altzari-sorta diseinatzeko prozesua. Asmatutako elementuetako bat *Negutegia* izan zen, fabrikazio digital bidez sorturiko egurrezko etxola bat, helburu duena Tabakalerako espazioa era malguan mugatzea eta bertan askotariko jarduerak barne hartzea. Lantegi honetan espazio horietako bat nola fabrikatu eta muntatzen den ikasiko dugu, CNC fresaketa eta neurri estandarreko egurrezko taulak erabiliz.

## JOLABS

APIRILAK **1, 8, 22, 29**;
MAIATZAK **6, 13, 20, 27** (larunbata)

Lantegia

### DO IT IN FAMILY

**10:00 - 13:00 EU**

Izen-ematea aldez aurretik.

Hirikilabs

Urtarrilean hasi genuen familia proiektuekin jarraituko dugu; ikasten, tramankulu berriak asmatzen eta familian elkarrekin gustuko ditugun proiektuak eginez ondo pasatzen.

EKAINAK **3, 10, 17, 24** (larunbata)

Lantegia

### TEKNOLOGIAREKIN DANTZAN

**11:00-13:00**

***Begoña Krego, María Martín, Fabián Morales***

Adina: 8- 14 urte

Izen-ematea aldez aurretik.

Hirikilabs

Zein zerikusi du teknologiak dantza edo antzerkiarekin? Argiarekin jolastea, bideo proiekzioekin eszenatokia eraikitzea, atrezzo interaktiboa sortzea... Aukera ugari eskaintzen dizkigu teknologiak arte eszenikoen munduan. Familiei zuzendutako lantegi honetan teknologiarekin eta dantzarekin esperimentatuko dugu eta, bukatzeko, sortutako obra taularatu egingo dugu uztailaren 1ean, 17:00etan.

## HIRIKILABS PLAZA

APIRILA, MAIATZA, EKAINA
(ostegunero)

Topaketa

### HIRIKILABS PLAZA 7: PROIEKTUAK GARATZEKO LAN-SAIO IREKIAK

**16:00 - 20:00 EU / ES**

Hirikilabs

*Hirikilabs Plaza* pertsonen, kolektiboen eta inguruneko praktika komunitateen artean elkarlanean proiektu irekiak garatu eta topatzeko lekua da. Beste lagun batzuekin bildu, ikertu, partekatu eta laborategia erabiltzeko uneak bilatzen ditugu, Hirikilabseko tresna eta baliabideak lantegi ireki moduan erabiltzeko, elkarrekin jendearen sormen ideiak garatu eta D.I.Y.-etik (zuk zeuk egin ezazu) D.I.W.O.-ra (besteekin egin ezazu) bihur daitezen.

*Hirikilabs Plaza*n prozesu parte-hartzaileak proposatzen dituzten bi deialdi zabaltzen dira urtean. Behin proiektuak publikoki azaltzen direnean, interesa duten pertsonak biltzen dira elkarrekin lan-saio batzuetan *Hirikilabs Plaza*ko lantaldeak osatzeko.

# TOPAKETAK

MAIATZAK **5** (ostirala)

Topaketa

## GELATIK LABORATEGIRA: HEZKUNTZAN LABORATEGI IREKIAK DISEINATZEKO TOPAKETA

**17:00 - 20:00 ES**

Hirikilabs

Elkartze honek ereduak eta esperientziak ikusarazteko eta laborategiaren ideia hezkuntzaren arloan praktikan jartzeko balioko du. Azken urtebetean irakasle talde batekin osatutako prozesu baten emaitza izango da.

# DEIALDIAK

MAIATZAK **13** > UZTAILAK **13**

Deialdia

## TEKNOLOGIA PROIEKTU IREKIAK HEZKUNTZAN

Deialdi honi esker, ikasle eta irakasleek euren teknologia irekiko proiektuak lantzeko Hirikilabsen baliabideak erabil ahal izango dituzte.

Deialdi honen bidez aukeratutako proiektuak irailetik aurrera garatuko dira.



***Teknologiarekin dantzan.*** *Begoña Krego, María Martín, Fabián Morales*



***CLICK**, Factoría Norte*






# HEZKUN-TZA

Aurkibidea

**KAMALEOIAK GARA!**
**HEZKUNTZA-KOMUNITATEA**
**KONGRESUA**
**0-6 GUNEA**
**HIRIA HACKEATU**
**HARROTU ILEAK**

# KAMALEOIAK GARA!

*Kamaleoiak gara!* jarduera-programa bat da haurrek eta helduek elkarrekin goza dezaten arte garaikidearen inguruan. Tabakalera elkarrekin bizi, jakintzak partekatu eta belaunaldien arteko komunitate batean ikasi nahi duten amak euren seme-alabekin, aitak ilobekin, bilobak amonekin...

MAIATZAK **13**, EKAINAK **17** (larunbata)

## KAMALEOIAK GARA! PROGRAMA! 0-99

Izen-ematea aldez aurretik.

MAIATZAK **13**

Irudi-antzerkia

## CLICK

***Factoría Norte***

**17:00 (50') EU** / Adina: +3 urte

Z aretoa

Argazkilaritza-kazetari ausart batek ahanzturan geratzen ari den irudi analogikoaren unibertsora hurbilduko gaitu. Bere "laborategi" berezian munduan barrena egindako bidaiatan ateratako argazkiak rebelatuko ditu. Bidaia horietan errefuxiatuen egoera gertutik ezagutzeko aukera izan du.

EKAINAK **17**

Kontzertua

## BUFA & SONS

***Xavi Lozano***

**17:00 (60') EU / ES**

Z aretoa

Pertsonaia kutun batek bere unibertso pertsonala eta objektuekin erlazionatzeko duen modu berezia erakutsiko dizkigu topaketa musikal baten bidez. Kontzertu-hitzaldi formatuan, artistak publikoarekin elkarrizketa sortuko du, eta une oro izango du umorea presente. Kontzertu bitxi honetan bidaia didaktikoa eta komikoa biziko dugu, egunero ikusten ditugun baina normalean entzuten ez ditugun objektuen bidez

APIRILAK **2**, MAIATZAK **7**, EKAINAK **4** (igandea)

Proiekzioa + lantegia

## KAMALEOIAK GARA! ZINEMA 5-99

**Proiekzioa: 12:00** / Zine-sarrera

**Lantegia: 12:45 EU** / Izen-ematea aldez aurretik.

Zinema

Hilean behin, igandez, film laburrez osatutako saio bat eskaintzen dugu zinema-aretoan, eta ondoren lantegi bat, ikusitako horretan jorratu diren gaien eta tekniken inguruan lan egiteko.

APIRILAK **23**, MAIATZAK **14**, EKAINAK **11** (igandea)

Lantegia

## KAMALEOIAK GARA! ERAKUSKETA 5-99

**11:00 - 12:30 EU**

Izen-ematea aldez aurretik.

Erakusketa-aretoa

*Bizigarriak: zirkulazioa eta euforia* erakusketan presente dauden arte-piezatan, objektuetan eta diskurtsoetan barrena ibiltzea, horiekin jolastu eta parte hartzea eta hori guztia modu dinamikoan aktibatzea proposatzen dugu lantegi hauetan.

APIRILAK **10 > 12**
(astelehena > asteazkena)
Lantegia

## KAM>PAMENTUAK: ZIRKUA FAMILIAN

**17:00 - 19:00 EU** / Adina: +5 urte
Izen-ematea aldez aurretik.

Haur zein heldu, jolasen bitartez, zirkuaren mundu liluragarria ezagutuko dugu elkarrekin. Lurreko eta aireko akrobaziak, malabareak eta objektuen manipulazioa, oreka... Eta hori guztia antzerki eta klown zertzeladez zipriztinduta. Lantegiaren lehen bi egunetan, norbere gorputza ezagutzeko ariketak egingo ditugu eta zirkuko askotariko diziplinak landuko ditugu. Hirugarren eta azken egunean, ikasitakoa islatuko duen erakustaldi txiki bat aurkeztuko dugu.



***BUFA & SONS,*** *Xavi Lozano*

# HEZKUNTZA-KOMUNITATEA

Hezkuntza-zentroei, elkarteei eta helduen heziketa-taldeei zuzendutako programak.

APIRILA, MAIATZA, EKAINA
(Asteazkenetik ostiralera)
Taldeentzako lantegia

## IBILBIDE-TAILERRAK

Izen-ematea aldez aurretik.

*Ibilbide-tailerrek* Tabakalerara lehen hurbiltze bat ahalbidetzen dute. Saio dinamiko hauetan taldeen parte-hartze aktiboa bilatzen dugu hainbat gairen bidez.

### TABAKALERA ESPLORATUZ!

*Lehen Hezkuntzako taldeei zuzenduta*
Eraikineko zenbait gunetatik egindako ibilbide batetik abiatuta, lantegi hauetan espazio publikoaren erabileran eta pertzepzioan sakonduko dugu, eta baita aztertuko ere nola bizi ditugun eguneroko tokiak eta zein den gure jokamoldea horietan. Zenbait dinamikaren eta jolasen bidez, lantegi honek Tabakalerako guneak eraldatzea eta haien erabilera kolektiboaz hausnartzea proposatzen du.

### REC: ZINEMA ESPERIMENTALA

*Apirilaren amaierara arte
*Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleei zuzenduta.*
Zinema esperimentaleko material-sorta batetik abiatuta, Aitor Gametxok zuzendutako zinema-lantegi honetan ikus-entzunezkoen errepresentazioari buruzko gogoeta kolektiboa egingo dugu. Landuko dugun gai nagusia identitatearen eraikuntza da, zalantzarik gabe, gazteentzat funtsezko gaia. Horretarako, ikusten dugun horretan ez ezik, egiten dugun horretan ere oinarritzen diren ikuspuntu alternatiboak aztertzen ere saiatuko gara. Azkenik, saioa zati praktiko labur batekin amaituko da.

OTSAILAK **17** > **11** EKAINAK

## ERAKUSKETEI LOTUTAKO IBILBIDE-TAILERRAK Bizigarriak: Zirkulazioa eta euforia

+info: or. 14

### MASKARATU ZAITEZ!

*Lehen Hezkuntzako taldeei zuzenduta.*
Lantegi hau *Bizigarriak: zirkulazioa eta euforia* erakusketarekin zuzenki lotuta dago, bertan aurkitzen dugun ideietako bati: kafea edo kakaoa bezalako bizigarriek pertsonengan duten transformaziorako gaitasuna. Zentzu horretan, errealitate berriak sortuko ditugu kea edo maskara bezalako elementuetatik abiatuta.

### INTOXIKAZIO BISUALA

*Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko taldeei zuzenduta.*
Mundu modernoaren ezaugarrietako bat irudien ugaritasuna da eta internet bezalako plataformek informazio bisual honen fluxu eta mugimendu etengabea ahalbidetzen dute. Lantegi honek, zenbait baliabideren bidez, irudi-bonbardaketa hau begiratzeko beste forma batzuk planteatzera eramango gaitu gazteekin batera.

### ZIENTZIAK JASOTZEN EZ DUENA

*Helduen taldeei eta elkarteei zuzenduta.*
Badaude esperimentazio zientifikoetan oinarritzen ez diren praktikak baina mundua beste era batera ezagutzeko aukera ematen digutenak. Magia,

zoria, ametsak... bezalako gaiak izango dira erakusketako ibilbidean landuko ditugunak esperientzia berriak bizi ahal izateko.

### MAÑANA GOODBYE. ELKARREKIN LAN EGITEN DUEN EMAKUME-TALDEA

*Helduen taldeei eta elkarteei zuzenduta.*
Tabakalerako Sotoan kokatutako *Mañana Goodbye* ikus-entzunezko instalaziotik sortu da lantegia. Proiektu honetatik ateratako materialen bidez lana, oroimena edo historia bezalako nozioen inguruan gogoeta egitera eramango gaituzten dinamika eta jolas-sorta bat gauzatuko dugu.

** Mañana Goodbye-ri buruzko informazio gehiago 20-21. orrialdean.*

MAIATZAK **1** > EKAINAK **2**

Deialdia

### ESKOLA-ALDIRIAK. EPE LUZEKO PROIEKTUEN 2017/2018 DEIALDIA

*Donostialdeko ikastetxeei zuzenduta.*
*Eskola-aldiriak* eskolako, auzoko edo hiriko espazioetan artea eta hezkuntza uztartzen dituen proiektu kolaboratibo bat garatzeko urtero egiten den deialdi bat da. Lan-moldeak birpentsatzeko eta hezkuntza-komunitatea sendotuko duten ikasketa-prozesuak abiarazteko aukera bat da. Epe luzeko aliantzak eta ikasketa-prozesuak ahalbidetuko dituzten harreman iraunkorrak izateko dugun interesa islatzen du programa honek.

*Deialdiaren oinarriak eta izen-ematea:*
*tabakalera.eu / hezkuntza@tabakalera.eu*

## KONGRESUA

EKAINAK **29** > UZTAILAK **1**
(osteguna > larunbata)

Kongresua

### IV NAZIOARTEKO KONGRESUA ARTEA, ILUSTRAZIOA ETA KULTURA BISUALA HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAN: ESKOLAZ KANPOKO ZEIN BARNEKO BITARTEKARITZA KRITIKOA

***Alejandro Cevallos, Nívola Uya, Aitziber Alonso, Miren Gillo, Anna Majó, ARTikertuz, Tabakalerako hezkuntza-taldea.***
Izen-ematea aldez aurretik:
congresoarteilustracion.org

Kongresu honen xedea da arteen eta kultura bisualaren inguruneak eta haurtzaroak elkarrekin duten interes gero eta handiagoak dakartzan hezkuntza-bitartekaritzaren alderdiak aztertzea.

# 0-6 GUNEA

*0-6 gunea* familiekin eta kanpoko beste eragile kolaboratzaileekin elkarlanean diseinatutako proiektua da. Espazioa hainbat eragilek lankidetzan sortua izateaz gain, modu kolektiboan kudeatzen da. Horretarako, 0-6 komunitatea hileko lehen ostiraletan bilduko da, kudeaketaz hitz egiteko eta hurrengo hilabeteetako programazioa osatzeko. Egitarau horrek ko-ikaskuntza praktikak, tailerrak eta praktika artistiko garaikideekin erlazionatutako prozesuak hartuko ditu barne.

*0-6 gunea* asteartetik ostiralera **10:00etatik 14:00etara** eta **17:00etatik 20:00etara** dago irekita, eta larunbatetan **10:00etatik 14:00etara.**

APIRILAK **21** (ostirala)
Hitzaldia
### AMATASUN SUBERTSIBOAK
*María Llopis*
**18:00 ES**
Z aretoa

María Llopis idazle, artista, ekintzaile eta feministak amatasun subertsiboei buruzko hitzaldi bat eskainiko du.

MAIATZAK **19** (ostirala)
Kontzertua
### THE COTTON TAILS
**18:00 EN**
Izen-ematea aldez aurretik.
Z aretoa

The Cotton Tails kontrabaxu, gitarra eta jazz swing hirukoteak familia guztiari zuzendutako haurrentzako abestien errepertorio zabala eskainiko du kontzertu honetan, *The Sound of Music* filmaren soinu-banda edota Sarah Vaughanen bertsioak, besteak beste.

EKAINAK **16** (ostirala)
Taller
### SORMENEZKO SUKALDARITZA-LANTEGIA FAMILIAN
*Kuku-Kuzu*
**17:30 - 19:00 EU** / Adina: +3 urte
Izen-ematea aldez aurretik.
Hirikilabs

Kuku-Kuzu familian elikadura eta sukaldaritza osasuntsua sustatzeko ekimena da. Proiektu honen sustatzaileek, Itzaga Garcia Alberrok eta Amaia de la Peña Lagok, lantegi honetan irakatsiko digute, batetik, fruten eta barazkien kolore eta zaporeak deskubritzen, zukuen dastaketa baten bidez, eta, bestetik, postre osasuntsu eta zaporetsuak prestatzen. Horren guztiaren xedea da haurrek sukaldaritza esperimentatzea eta bizitzea.

# HIRIA HACKEATU

APIRILAK **28**, MAIATZAK **26**, EKAINAK **30** (ostirala)
Lan-taldea
### HIRIA HACKEATU Lan-taldea
**17:00 - 19:00**
Izen-ematea aldez aurretik.
Hirikilabs

*Hiria hackeatu* lan-taldea teknologia digitalekin esperimentatzeko interesa duten, beren ingurunean aldaketak eragiteko eta proposatzeko prest dauden eta ikasketa-prozesu parte-hartzaileetan *hacker* eta *maker* filosofietan hausnartzeko gogoa duten 12-17 urte bitarteko gazteek osatzen dute.

APIRILAK **18 > 21** (asteartea > ostirala)
Taller
## BOOMBOX. EREIN MUSIKA HIRIAN!
***Sergio Galán***
Izen-ematea aldez aurretik.
Hirikilabs

Sergio Galán interakzio-diseinatzailearen eta programatzailearen zuzendaritzapean, *Boombox* edo soinu-sistema bat garatuko dugu guztion artean, eta ondoren hiriko guneren batean instalatuko dugu edonork erabil ahal dezan.

# HARROTU ILEAK

Hezkuntza erresidentzia proiektua

Nolakoak dira gazteak? Nola janzten dira? Zer musika entzuten dute? Nola sentitzen dira? Nola irudikatzen dute euren burua? Maiz helduek gazte izan direla ahazten dute, eta gazteek, berriz, noizbait heldu izango direla.

Tabakalerako hezkuntza taldea eta CAPP (Collaborative Arts Partnership Programme) programaren baitan lanean ari dira Oihane Espuñez eta Felipe Polania artista egoiliarrak prozesu bat garatzen. Bertan, Tabakalerako espazio publikoetan egon ohi diren gazteak gonbidatu nahi dituzte euren identitateari buruz eta espazio publikoaz egiten duten erabilerari buruz hausnartzera. Horretarako, hainbat ekintza proposatu dituzte, besteak beste: euren buruak leku horietan irudikatuko dituzten argazki eta selfien erakusketa, bideogintza tailerra, open training espazioak (hiphop, house, breaking...), eta rap kantu bat sortzeko lantegia.

Horrela, gazteen, Tabakalera erakundearen, bertako erabiltzaileen eta zerbitzuetako langileen arteko elkarrizketarako espazioa proposatu nahi dugu. Gure helburua espazio publikoen erabileraren eta jabetzaren inguruan adostasuna lortzea da.



***Hiria Hackeatu***


UBIK



# UBIK

## Tabakalerako sorkuntza liburutegia

Aurkibidea

PENTSAMENDUA
IKUS-ENTZUNEZKOAK
SOINUA
AUTOEDIZIOA
BIDEO-JOKOAK
TEKNOLOGIA
ESPAZIOAK ETA ARKITEKTURA
UDABERRIKO LANTEGIAK
BESTEAK

# PENTSAMENDUA

APIRILAK **6**, MAIATZAK **4**, EKAINAK **8** (osteguna)
Topaketa
## NIRE MUNDUA. HAURRENTZAKO FILOSOFIA
*Miren Camisón Goienetxea*
**17:30 - 19:00 EU** / Adina: 8-12 urte
Izen-ematea aldez aurretik
Ubik, Lantegia

Gizartean egunero entzun eta bizitzen diren gaien inguruan galdetzea, hitz egitea, pentsatzea eta elkarrizketa bultzatzea dira *Nire mundua* topaketaren helburuak. Denbora libreari etekina ateraz eta lagun arteko giroari, kezkak, dudak eta zalantzak sortzen dizkiguten gaien inguruan aritzeko aukera paregabea. Gogoetarako tartetxo lasai bat hartzeko luxua.

APIRILAK **29**, MAIATZAK **27**, EKAINAK **24** (larunbata)
Topaketa
## ESPLORATZAILEAK. PENTSAMENDU KRITIKOAREN INGURUKO IRAKURKETA-TALDEA
*Martxel Mariskal*
**11:30 - 13:30 EU + ES** / Adina: +18 urte
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik, Egongela

Gustuko duzu irakurtzea? Eta filmak ikustea? Gustuko badituzu, zergatik? Inori gomendatuko zenizkioke?
Hala bada, har ezazu parte Ubikeko *Esploratzaileak* taldean. Liburutegiko funtsa abiapuntu hartuta, bertako liburu eta filmekin gozatzeko aukera izango duzu. Hartu zerrenda, irakurri, ikusi, partekatu eta proposatu.

APIRILAK **28**, MAIATZAK **26**, EKAINAK **30** (ostirala)
Topaketa
## XAKE-MATE! MAHAI-JOKOEN ARRATSALDEA
*Iñaki Vazquez*
**18:00 - 20:00 EU + ES**
Ubik, Lantegia

Astea amaitzeko modu hoberik ote? Ostiral arratsaldea mahai-jokoetan aritzeko unea da Ubiken. Joko ezberdinetan aritzeko aukera izango dugu: arrazoiketa taktikoa edo estrategia lantzen dute batzuek; koordinazioa, esku-abilezia eta memoria besteek, badira zorian oinarritzen direnak ere.
Dadoak, fitxak, kartak, rola edo xakea eta beste hainbat joko ere pasako dira mahaitik. Ez galdu zure txanda!

# IKUS - ENTZUNEZKOAK

MAIATZAK **18** (osteguna)
Aurkezpena
## UBIK BISITARIAK. ZINEMA UNEAK
**18:30 - 19:30 EU**
Ubik, Lantegia

*Zinema Uneak* zinema eta telesailen inguruko informazioa euskara hutsean zabaldu nahi duen webgunea da.
Ikus-entzunezkoa hizkuntza anitzetan kontsumitu eta heltzen zaigun garai honetan, zergatik ez egin euskaraz? Iron Man, Gandalf, Batman, Mad Max edo Buzz Lightyear-ek hamaika hizkuntzatan hitz egiten badute, zergatik ez euskaraz?

# AUTOEDIZIOA

APIRILAK **26**, MAIATZAK **31**, EKAINAK **28**
(asteazkena)
Lantegia

## ATLAS. AUTOEDIZIO LANTEGIAK

**18:00 - 20:00 EU + ES**
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik, Autoedizio-txokoa

Autoedizioari lotutako alderdi praktikoak lantzeko lantegiak egiten ditugu hilero. Sortzeko prest? Ondorengo gaiak ezagutzeko aukera izango duzu datozen saioetan:

**Apirilak 26**
**Kaligrafiara sarrera.**
Bego Viñuela

**Maiatzak 31**
**Pantailatik paperera: Serigrafia-lantegia.**
Julia Pelletier

**Ekainak 28**
**Nola funtzionatzen du inprentak? Ikus dezagun eredu bat**

EKAINAK **2** (ostirala)
Aurkezpena

## LA FANZINOTECA: BILDUMAREN AURKEZPENA ETA ERAKUSKETA

**18:30 - 20:00 ES**
Ubik, Autoedizio-txokoa

*La Fanzinoteca* fanzine, eskuz egindako liburuz eta beste hainbat argitalpen sailkaezinez osatutako artxibo baten inguruan antolatzen den proiektua da. Argitalpen mota hauek hedatzea eta praktika, ikasketa eta gogoetarako espazio bat sustatzea ditu helburu.

*La Fanzinoteca* 2005 urtean hasi zen Saladestar-en kontsulta puntu iraunkor gisa eta 2008an, espazio honen itxierarekin, bizitza propioa izatea ahalbidetu zion *La Fanzinoteca Ambulant* modulu ibiltaria eraiki zuten.

Aurkezpenean *La Fanzinoteca*-ren ibilbidea ikusiko dugu: abiapuntua, esperientzia, filosofia eta gaur egungo autoedizioaren egoera.

Bilduma, bereziki saio honetarako egin den aukeraketa, ikusgai egongo da ekainaren 2tik 4ra bitartean, Ubikeko ordutegian.

EKAINAK **3** (larunbata)
Lantegia

## LA FANZINOTECA: TAGGING DAY

**11:00 - 18:00 ES** / Adina: +16 urte
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik, Autoedizio-txokoa

*Tagging Days* saioa argitalpenen artean eskua sartu, argitalpenak deskubritu eta *La Fanzinoteca* katalogoa handitzen lagundu nahi duen orori zuzenduta dago. Asmoa *La Fanzinetecaren* (An)artxiboaren filosofia eta metodologia partekatzea da eta, aldi berean, bildumaren eraketaren irizpideak bertaratzen direnen interes eta nahietara irekitzea.

*Tagging Days* saioan parte hartzeko ez da inolako baldintza berezirik bete behar, ezta gaiaren inguruko ezagutza zehatzik izan behar ere. Fanzineak irakurtzeko eta deskubritzeko gogoa eta tartea izan behar dira soilik. Animatu zaitez fanzineen artean arakatzera!

EKAINAK **4** (igandea)

Lantegia

## LA FANZINOTECA: ETXEAN EGINDAKO INPRENTA. FAMILI LANTEGIA

**11:00 - 13:00 ES** / Adina: +8 urte + helduak
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik, Autoedizio-txokoa

Autoedizioaren inguruan familia-lantegi bat proposatzen digute *La Fanzinoteca*-ko lagunek: txundituta utziko zaituen sistema erraz eta dibertigarria ekarriko digute: *Gelatina*. Sistema hau erabiliz, denon artean, fanzine kolektibo bat egingo dugu. Ezagutu sistema honen xarma!

# BIDEO-JOKOAK

APIRILAK **11, 25**; MAIATZAK **9, 23**; EKAINAK **13, 27** (asteartea)

Topaketa

## NIK ERE NAHI DUT!

**11:00 - 12:30 EU + ES** / Adina: +50 urte
Ubik, Bideo-jokoaren txokoa

Nork esaten du bideo-jokoak gazteentzat bakarrik direla? Jolastu, saiatu, frogatu eta ondo pasatzeko ez dago adinik. Beldurra eta lotsa alde batera utzi eta atera iezaiozu etekina Ubik liburutegian bideo-jokoetan aritzeko aukerari. Probatu eta ikasi. Zatoz bideo-jokoen mundua deskubritzera!

# TEKNOLOGIA

APIRILAK **1, 15**; MAIATZAK **6, 20**; EKAINAK **3, 17** (larunbata)

Lantegia

## JOLABS KUXKUXEAN

***M-Etxea***

**11:00 - 13:00 EU + ES** / Adina: +8 urte
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik, Lantegia

*JoLabs* haurrak eta gazteak teknologiaren eta kultura digitalaren mundura hurbil daitezen Ubiken antolatutako lantegiak dira. Lantegi hauetan, elektronika, mekanika, kodea, bideo-jokoak eta fabrikazio digitala bezalako zenbait arlo lantzen dira modu pedagogiko, kritiko, sortzaile eta dibertigarrian.

Jarraian hilabete hauetarako proposamenak. Eman izena!

**Apirilak 1 – ¡Scratcheatu!**
**Apirilak 15 –Ai Hama!**
**Maiatzak 6 – Jeiki-makey!**
**Maiatzak 20 – Adrenalights**
**Ekainak 3 – desTxipatzaileak**
**Ekainak 17 – 3Dikatu!**

MAIATZAK **6, 13, 20, 27** (larunbata)

Lantegia

## ARDUINOA EZAGUTU

***Unai Gorrotxategi***

**11:00 - 13:00 EU + ES** / Adina: +16 urte
Ubik, Lantegia

Gailu edo robot bat sortzeko aukera izango bagenu, zein funtzio eta ahalmen emango genizkioke? Arduino bezalako txip programagarriak gure eskura daude.

Zuk ere programatu ditzakezu: aterki eguraldi iragarleak, baratza adimenduak, etxea kudeatzeko domotika sistemak... Sor dezagun zerbait Hardwarea, software librea eta gure irudimenarekin.

Pasa den udazkenean antolatu genuen lantegian parte-hartzerik izan ez bazenu, hemen duzu aukera!

MAIATZAK **9 > 12** (asteartea > ostirala)
Lantegia
### 3D IMPRIMAGAILUA MUNTATUKO DUGU?
**17:00 - 20:00 EU + ES** / Adina: +13 urte
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik, Teknologia txokoa

Nola muntatzen da 3D inprimagailu bat? Ikasi nahi al duzu? Talde-lana eta teknologia gustuko badituzu, hau da zure aukera. Lantegi teoriko-praktiko honen helburua 3D inprimagailu baten barruak ezagutzeaz gain, hutsutik abiatuta, urratsez urrats, inprimagailu bat muntatzea da. Lau arratsaldetarako erronka ederra!

## UDABERRIKO LANTEGIAK

Atera etekina oporrei gauza berriak deskubritu, ikasi eta egiteko. Bi lantegi proposatzen dizkizugu udaberri honetan: eskuekin lan egin nahi baduzu, paperak moztu, tolestu eta forma berriak sortu ahal izango dituzu *Egizu Pop-Up liburua!* lantegian, eta, aldiz, irudi zalea bazara, *Fokatu!* lantegian argazki teknikak eta irudiak sareetan partekatzeko modua ikasiko dituzu. Zein da zure aukera?

APIRILAK **11 > 13** (asteartea > osteguna)
Lantegia
### EGIZU POP-UP LIBURUA!
**10:30 - 13:30 EU + ES** / Adina: +16 urte
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik, Autoedizio-txokoa

Pop-Up, liburu baten orrialdetik abiatuta, zabaltzen diren forma eta estrukturak sortzeko teknika bat da. Moztu, tolestu eta itsastearen bidez, gure argitalpenak efektu harrigarriekin dinamizatzea lortuko dugu. Bigarren eskuko liburuei Pop-up efektuak gehituko dizkiegu. Sortutako argitalpen berri eta dibertigarriak, apirilaren 23eko Bookcrossing-ean askatuko ditugu. Zatoz Pop-Up-aren teknika ezagutzera eta sor ditzagun hiru dimentsioko liburu bidaiariak!

APIRILAK **18 > 21** (asteartea > ostirala)
Lantegia
### FOKATU! ARGAZKIAK EGIN ETA SAREAN PARTEKATU ITZAZU
***Niko Iturralde, Jorge Campanillas, Xabier Cañas***
**10:30 - 13:30 EU** / Adina: +16 urte
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik, Lantegia

Argazkigintzan lehen urratsak eman nahi dituzu? Eta hiriko argazki erreportai bat nola egiten den ikasi? Argazkiak sarean partekatzen ikasi nahi duzu?

Obturazio-abiadura, diafragma edo ISO zer diren ezagutu nahi baduzu eta enkuadraketa, edizioa eta lan-prozesuak praktikatu nahi badituzu, zatoz gurekin. Alde teorikoa lantzeaz gain, kalez kale argazkiak egin, hauek editatu eta lizentzia librearekin sareratuko ditugu.

# BESTEAK

APIRILA, MAIATZA, EKAINA
(asteazkenero)
Lantegia

## ASTEAZKENETAN UBIKEN

**17:30 - 19:00 EU /** Adina: 6-10 urte
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik, Lantegia

Pentsamenduaren, ikus-entzunezkoen, soinuaren, bideo-jokoaen, teknologiaren eta autoedizioaren inguruan esperimentatu eta ondo pasa nahi duzu? Astean behin hainbat gai deskubrituko ditugu ekintza proposamen baten bidez. Haurrei zuzendurik, elkarrekin sormena lantzeko eta ondo pasatzeko tartea izango duzu *Asteazkenetan Ubiken*.

APIRILAK **4, 18**; MAIATZAK **2, 9**; EKAINAK **6, 20** (asteartea)
Lantegia

## ITSASPEKO GORRIA: 1-4 URTE ARTEKOEK IKASI, SORTU ETA GOZATZEKO TARTEA

*Naiara Palacios*
**11:00 - 12:00 EU + ES** / Adina: 1-4 urte
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik, Lantegia

*Itsaspeko gorria* hartuta, Ubiken murgilduko gara familian. Sorkuntza lantzeko, materialak deskubritzeko eta horiekin jolasteko saioak dira *itsaspeko gorrian* egingo ditugunak. Itsaslami, olagarro eta itsas-zaldiak bidelagun izango ditugu bidai honetan. Txikiek eta helduek elkarrekin jolasten esperimentatzeko aukera ezinhobea. Bazatoz?

APIRILAK **8**, MAIATZAK **13**, EKAINAK **10**
(larunbata)
Lantegia

## HORKONPON.KONPONKETA LANTEGIA

**10:00 - 14:00 EU + ES**
Ubik, Lantegia

*HorKonpon*en parte hartzeko ondoko bi baldintzetako bat (ala biak) bete beharko du edonork: askotariko eskulanen arloan irakasteko zerbait izatea edo ikasteko gogoa izatea.

*HorKonpon* egunerokoan erabiltzen dugun hainbat tresna konpontzea eta berrerabiltzea ardatz hartzen duen tailer irekia da (kafeterak, kremallerak, kontsolak...). Herritarrak autonomoago bihurtzea (do it yourself) eta talde-lana sustatzea (do it together) ditu helburu. Horretarako, adin eta gaitasun ezberdinetako jendea elkartu nahi ditu eta, teknika eta teknologiari buruzko ezagutzak partekatzearen bidez, elkarrengandik ikasteko bideak ireki. Badakizu, hilabetearen bigarren larunbatean *HorKonpon* Ubiken.

APIRILAK **23** (igandea)

Esku-hartzea

## BOOKCROSSING

*Bookcrossing*-a liburuak "askatu" eta eskuz esku zirkulazioan jartzeko mundu osoko ekintza da. Parte-hartzaileek liburuak askatu ostean, interesa duten pertsonek jaso, irakurri eta ondoren berriz beste leku batean aske uztea da ekimenaren funtsa. Ubik-ek, aurten ere, ekintza honetan parte hartuko du eta ale bakarrak diren liburu bereziak askatuko ditu; *Egizu Pop-Up liburua!* lantegian Ubikeko erabiltzaileek sortutako liburuak, hain zuzen.

Bilatu ezazu zure liburua! Hartu, ikusi eta berriz ere askatu!



*Itsaspeko gorria: 1-4 urte artekoek ikasi, sortu eta gozatzeko tartea*



Estudio irekiak




# SORTZAI-LEEN GUNEA

Aurkibidea

**2018 EGONALDIAK**
**BITAMINE FAKTORIA**
**ATALAK XXIX**
**KOMISARIOTZA-PROGRAMA: ARTE-KRITIKA ETA IDAZKERA**
**LANTEGI IREKIAK**

APIRILAK **1** > MAIATZAK **31**
(larunbata > asteazkena)
Deialdia
## 2018 EGONALDIAK
+ info eta oinarriak: tabakalera.eu

Tabakalerarak 2018an egonaldi artistikoetan parte hartzeko laugarren deialdia zabaldu du. Apirilaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean, jarraian zehazten diren egonaldi modalitate desberdinetan izena emateko epea zabalik izango da: komisariotza, proiektu artistikoen garapena, kolaborazioan garatzeko proiektua, ikus-entzunezkoa, koreografia eta ekoizpenerako laguntzak.

APIRILAK **6** (osteguna)
Aurkezpena
## BITAMINE FAKTORIA
*Carlos Sánchez, Oier Gil*
**18:00 EU+ ES**
Lantegia

Bitamine Faktoria mugaz gaindiko sormen lantegi bat da, kultura, diseinua eta arte garaikidea hedatu, ekoitzi eta nazioartekotzeko xedea duena. Hainbat laguntza-programa aurkeztuko dira, artearen ikerketa eta ekoizpena eta artisten nazioarteko mugikortasuna bultzatzea helburu dutenak.

Horien artean EAS-EZE programa nabarmentzen da. Deialdi honen bidez arte-proiektu bat hautatuko da hainbat hilabetez Euskal Herrian garatu ostean Buenos Aires hirira esportatzeko.

APIRILAK **20** (osteguna)
Koreografia sormena
## ATALAK XXIX
*Iker Gómez, Mikel Aristegui*
**20:00**
Patioa

ATALAK ekimenaren testuinguruan, Iker Gómez eta Mikel Aristegui koreografoek astebeteko egonaldian Dantzaz Konpainiaren dantzariekin sortu duten lanaren emaitza aurkeztuko dute.

ATALAK Dantzaz Konpainiaren egitasmoa da, Donostia Kulturak bultzatua. Honen bitartez Euskal Herriko koreografoei astebeteko sormen egonaldiak garatzeko aukera eskaintzen zaie Dantzaz Konpainiako 12 dantzariekin.

Tabakalera proiektu honen parte da, ondorengo erakundeekin batera: Dantzagunea, Centro Coreógrafico Nacional Malandain Ballet Biarritz eta Azkuna Zentroa.

MAIATZAK **29** > EKAINAK **2**
(astelehena > ostirala)
Mintegia

## KOMISARIOTZA-PROGRAMA: ARTE-KRITIKA ETA IDAZKERA

Koordinazioa: *Peio Aguirre*
Gonbidatuak: *Nina Möntmann, Jeremy Millar, Jon Mikel Euba*
**10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 ES + EN**
Izen-ematea aldez aurretik.
Lantegia

Modulu honek arreta jarri nahi du arte-kritikaren eta idazkeraren gai nagusian: testuan. Arte-kritikaren funtzioa aztertuko da kultur kritika orokorrarekin duen harremanaren arabera, aipamenen eta artista testuen bidez. Moduluak honako atalak izango ditu: testuen irakurketa eta iruzkintzea, filmak ikustea, eztabaida eta bibliografia elkartrukea, idatzien "trafikoa", eta kontzientzia hartu eta idazketarako prest egoteko esperientzien elkarbanaketa.

EKAINAK **3** (larunbata)
Ate irekiak + Aurkezpenak

## LANTEGI IREKIAK

*Mar Torre, Bernd Behr, Jorge Núñez, Beatriz Setién*
**12:00 - 19:00**
Lantegia

Sortzaileen gunean egoiliarrek lantzen dituzten proiektuak lehen eskutik ezagutzeko aukera izango dugu egun honetan. Horretarako, lantegiak irekiko ditugu eta artistek aurkezpenak eskainiko dituzte.



***Bitamine faktoria***

KULTURA GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO ZENTROA

# OHARRAK

# BISITAK

Erakusketak ezagutzeko eta eraikinaren historia eta memoriara hurbiltzeko ibilbideak eskaintzen ditu Tabakalerak.

IKASTETXEAK ETA ELKARTEAK
Taldeei zuzenduta, Ibilbide Tailerrak eskaintzen ditugu arte garaikidera hurbiltzeko helburuarekin. Erreserba egiteko jar zaitez hezkuntza arloarekin harremanetan: **hezkuntza@tabakalera.eu** helbide elektronikoan edo **+34 943 118 855** telefono zenbakira deituz.

BISITA PRIBATUAK
Bisita pribatu bat eskatzeko (euskaraz, gazteleraz, ingelesez, frantsezez edo alemanez) jar zaitez harremanetan Informazio puntuarekin: **info@tabakalera.eu** helbide elektronikoan edo **+34 943 118 855** telefono zenbakira deituz.

BISITA SOLASALDIAK ETA BISITA ESPERIMENTALAK
Erakusketak ezagutzeko bisitak. +Info: or. 18
Erreserbak: **info@tabakalera.eu** edo Informazio puntuan.

# AKTIBITATEETAN IZEN-EMATEA

Izen-ematea aldez aurretik egitea eskatzen duten aktibitateetan parte hartzeko, **tabakalera.eu** edo Informazio puntuan eman izena.

ZINEMA SARRERAK:

· tabakalera.eu
· Informazio puntuan
· Leihatilan emanaldia baino 30' lehenago
· Prezioa: 3,50€

# IRISGARRITASUNA

Eraikina dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zein familientzako egokituta dago hein handi batean.

Gurpildun aulki bat dago erabiltzaileon eskura. Zeinu Hizkuntza Interpretazio Zerbitzuarekin (ZHIZ) bisitak erreserbatzeko aukera ere badago.
ZINEMA: Zinema aretoak Bukle magnetiko sistema eta sei besaulki egokitu ditu, lehen ilaran.

# TABAKALERA TXARTELA

Tabakalera txartela eskuratzeko aukera dago Ubik, Tabakalerako sorkuntza liburutegiaren harreran (2. solairua).

*NOTA: Eskuorri honetan argitaratutako informazioak aldaketak jasan ditzazke. Azken eguneraketak ikusteko web orria kontsultatu.*




**Informazio puntua**

**Igogailuak**

**WC**

**Aldatzeko mahaia**

**Eskailerak**

**Jatetxea**

**TABA**

**Hotela-Egoitza**

+info
**tabakalera.eu**

# SOLAIRUA

## 0

1. SOTOA
2. PLAZA
3. KUTXA KULTUR ARTEGUNEA
4. NANA
5. LÄNTOKI
6. ARTEUPARTE
7. EL SEKADERO
8. BASQUE LIVING
9. TABA

## 1

1. TABAKALERAKO ERAKUSKETA ARETOA
2. PATIOA
3. ZINEMA, 1 ARETOA
4. Z ARETOA
5. HEZKUNTZA ARETOA
6. KUTXA KULTUR KLUBA
7. 1 ESPAZIOA
8. GANBARA
9. HOTELA-EGOITZA
   Laster zabalik

## 2

1. UBIK
   Tabakalerako sorkuntza liburutegia
2. DONOSTIA ZINEMALDIA
3. EUSKADIKO FILMATEGIA
4. ZINEMA, 2 ARETOA

## 3

1. TABAKALERAKO BULEGOA
2. HIRIKILABS
3. LANTEGIA
4. EKOIZPENA
5. ESTUDIOAK
6. K ARETOA
7. ZINEUSKADI
8. ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA
9. IMPACT HUB DONOSTIA

## 4

1. KUTXA KULTURGUNEA
2. ZABALTZA

## 5

1. PRISMA
2. TERRAZA
3. JATETXEA

Tabakalera kultura garaikideaz gozatzeko espazio publikoa da. Sarrera doako du.

TABABAKALERA

KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

## ORDUTEGIA

### ZENTROA

Astelehenetik ostegunera:
**08:00 - 22:00**

Ostirala:
**08:00 - 23:00**

Larunbata:
**10:00 - 23:00**

Igandea eta jaiegunak:
**10:00 - 22:00**

### UBIK

**Sorkuntza liburutegia**

Asteartetik larunbatera:
**10:00 - 14:00**
**16:00 - 20:00**

Igandea eta jaiegunak:
**10:00 - 14:00**

### ERAKUSKETAK

Asteartetik ostegunera:
**12:00 - 20:00**

Ostirala:
**12:00 - 21:00**

Larunbata:
**10:00 - 21:00**

Igandea eta jaiegunak:
**10:00 - 20:00**

**+Info:** info@tabakalera.eu · 943 11 88 55 · Andre zigarrogileak plaza 1,
20012 Donostia / San Sebastián · Gipuzkoa

**tabakalera.eu** **#gozatutabakalera**

Gipuzkoako Foru Aldundia
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
DSS2016.EU